

Erosketak egiten



Ana erosketak egitera joan da. Euskal Herriko produktuak ezagutu nahi ditu: gazta, piperrak, ardoa... Guk ere egingo ditugu erosketak eta NAHI eta BEHAR aditzak errepasatuko ditugu, eta BALIO aditza eta ZENBAKIAK ikasi.

Ana se ha ido de compras. Quiere conocer los productos de Euskal Herria: Queso del país, pimientos, vino...

Nosotros también nos iremos de compras en esta unidad. Así, repasaremos los verbos NAHI y BEHAR y aprenderemos el BALIO. ¡Ah, y los números!



entzumena

Entzun elkarrizketa eta aukeratu egokiena.
Escucha la grabación y elige la opción verdadera.

- Zer nahi du Anak?
 - a. janariak
 - b. edariak
- Idiazabal gaztak _____ esnea du.
 - a. behi
 - b. ardi
- Zenbat balio du?
 - a. kiloak 18 €
 - b. gaztak 18 €
- Nolakoa da gazta?
 - a. merkea
 - b. garestia
- Zenbat balio du Erronkari gaztak?
 - a. 18 € kiloak
 - b. 18 € gaztak
- Non dago Erronkari?
 - a. Nafarroan
 - b. Gipuzkoan
- Nongoa da ardo beltza?
 - a. Errioxakoa
 - b. Getariakoa
- Anaren ustez, txakolina _____ da.
 - a. garestia
 - b. merkea
- Anak turismo bulegoko telefonoa nahi du?
 - a. ez
 - b. bai



binaka

Irakurri elkarrizketa eta erantzun galdera hauei.
Leed la transcripción de la conversación de Ana y responded a estas preguntas.

**Zer elementu berri aurkitu dituzue elkarrizketa honetan?
Zer esan nahi dute?
Nola erabiltzen dira?**

- *Kaixo, egun on!*
- *Baita zuri ere! Hauek Euskal Herriko produktuak dira?*
- *Bai, denak dira Euskal Herrikoak. Zer nahi duzu, janariak ala edariak?*
- *Beno, janariak nahi ditut.*
- *Gazta hau oso famatua da. Idiazabal gazta da, ardi-esnea du.*
- *Ardi-esnea? Eta zenbat balio du gaztak?*
- *Tira, merkea da. Kiloak 18 € balio ditu.*
- *Merkea? 18 €!*
- *Bai, ez da garestia.*
- *Eta honek zenbat balio du?*
- *Honek? Honek ere 18 € balio ditu.*
- *Hau ere Idiazabalgoa da?*
- *Ez, hau ez da Idiazabalgoa. Hau Erronkarikoa da.*
- *Erronkari Nafarroan dago, ezta?*
- *Bai, probatu nahi dituzu?*
- *Ondo da. Ummmm, oso goxoak daude! Jarri biak. Biak erosi nahi ditut.*
- *Aizu, ardoa nahi duzu?*
- *Ardoa? Ondo da.*
- *Beltza ala txuria?*
- *Ummmmmmmm!*
- *Beltza Errioxakoa da, oso ona da.*
- *Eta zuria?*
- *Zuria txakolina da, Getariakoa da.*
- *Zenbat balio du botilak?*
- *Botila honek 6 € balio ditu. Ez da garestia.*
- *Ez, ondo dago, merkea da. Hori ere nahi dut. Zenbat da?*
- *62 €.*
- *Primeran!*
- *Oso ondo, mila esker, agur!*
- *Aizu, barkatu! Turismo-bulegoa hurbil dago?*
- *Bai, oso hurbil. Baina, telefonoa nahi duzu?*
- *Bai, mesedez!*
- *Apuntatu: 94 6873214*
- *Eskerrik asko, agur.*
- *Adio! Hurrengora arte!*

Erantzun galderei. Contesta a las preguntas.

- Nongoak dira produktuak?
- Zer nahi du Anak?
- Zenbat balio du ardi-gaztak?
- Idiazabalgo gazta goxoa da?
- Nongoa da ardo beltza?
- Zenbat balio du txakolinak?
- Non dago turismo-bulegoa?

Zenbakiak



Erosketak egin nahi badituzu, zenbakiak jakin behar dituzu. Hona hemen pista batzuk. Aurkitu nola esaten diren zenbakiak euskaraz.

Si quieres ir de compras, te resultará de gran utilidad aprenderte los números. Lee estas pistas y relacionalas con el número al que se refieren.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
100
1.000

1	Zazpi egun ditu asteak.
2	Sei, sei, sei deabruaren zenbakia da.
3	Bat da lehenengo zenbakia.
4	Bederatzi ia-ia hamar da.
5	Betaurrekoak dituenak lau begi omen ditu.
6	Bost dira eskuko hatzak.
7	Hamabi hil ditu urteak: Urtarrila, otsaila...
8	Hamahiru zenbakia txarra da.
9	Hamaika lagunek osatzen dute futbol-taldea.
10	Hamar mandamendu daude.
11	Hamar mendek mila urte.
12	Hiru dira Errege Magoak.
13	Lau bi aldiz zortzi dira.
100	Mende batek ehun urte ditu.
1.000	Pareja bat bi pertsonak osatzen dute.
	Sei-a da Deabruaren zenbakia.
	Zazpi egun ditu asteak.



I-bat
V-bost
X-hamar
L-berrogeita hamar
C-ehun
D-bostehun
M-mila

1	bat	14	hamalau	90	laurogeita hamar
2	bi	15	hamabost	100	ehun
3	hiru	16	hamasei	110	ehun eta hamar
4	lau	17	hamazazpi	200	berrehun
5	bost	18	hamazortzi	300	hirurehun
6	sei	19	hemeretzi	400	laurehun
7	zazpi	20	hogei	500	bostehun
8	zortzi	30	hogeita hamar	600	seiehun
9	bederatzi	40	berrogei	700	zazpiehun
10	hamar	50	berrogeita hamar	800	zortziehun
11	hamaika	60	hirurogei	900	bederatziehun
12	hamabi	70	hirurogeita hamar	1.000	mila
13	hamahiru	80	laurogei		

Lotu bi zutabeak

Une los números y la manera de escribirlos

1	Bat
22	Berrogeita hamaika
98	Berrogeita sei
105	Bi mila
2.000	Bostehun eta berrogeita sei
35	Ehun eta bost
68	Hiru mila seiehun eta hogeita lau
77	Hirurogeita hamazazpi
51	Hirurogeita zortzi
46	Hogeita bi
82	Hogeita hamabost
546	Laurogeita bi
3.624	Laurogeita hamazortzi

Zenbakiak

Ordenatu zenbakiak

Entzun grabazioa eta zenbakiak ordenatu.

Escucha la grabación y ordena estos números según su orden de aparición.

78 68 82 406 17 327 107 94 1.200 517
6.000 31

Zenbaki erromatarrak

I-bat
V-bost
X-hamar
L-berrogeita
hamar
C-ehun
D-bostehun
M-mila

Idatzi zenbaki erromatar batzuk paper zati batean eta eman ikaskideari euskaraz jartzeko.

Escribe unos números romanos en un trozo de papel y dáselos a tu compañero, -a para que los ponga en euskara.

Zenbakiak lantzen

Jarri binaka eta prestatu eragiketa matematikoak. Ondoren, egin. En parejas preparad operaciones matemáticas, intercambiáoslas y hacedlas.

Zu ere matematikari

+

-

x

:

=



gehi
ken
bider
zati
berdin

BALIO aditza

BALIO. Valer

NAHI eta BEHAR aditzak bezala erabiltzen da.
Se usa como los verbos NAHI y BEHAR.

Honek ez du balio.
Liburu horrek 18 € balio du.
Auto horrek asko balio du.
Auto horrek ez du asko balio.

Este no vale.
Este libro vale 18 euros.
Ese coche vale mucho.
Ese coche no vale mucho.



ariketa

Erantzun galderari. Responde a la pregunta.

Zenbat balio dute? Zenbat balio du?



binaka

Egin galdera ikaskideari: Zenbat balio du ...k?
Pregunta a tu compañero, -a: Zenbat balio du ...k?

A ikaslea

Barazkiak



Letxugak 1€
Tomateak 4 €
Lekak 6 €
Porruak 3 €
Patatak 1 € eta 80 zentimo

B ikaslea

Fruituak



Laranjak 2 € eta 40 zentimo
Bananak 5 €
Sagarrak 3 € eta 35 zentimo
Meloiak 4 €
Kiwiak 5 € eta 25 zentimo

Adibidez...

- Zenbat balio du letxugak?
- Letxugak bi euro balio ditu/du

Gogoratu plurala bada...

- Zenbat balio dute marrubiek?
- Marrubiek bost euro balio dute/dituzte

Erantzun galderai. Responde a las preguntas.



- Zenbat balio dute tomateek?
- Zenbat balio dute lekek?
- Zenbat balio dute porruiek?
- Zenbat balio dute patatek?
- Zenbat balio dute laranjek?
- Zenbat balio dute bananek?
- Zenbat balio dute sagarrek?
- Zenbat balio du meloiak?
- Zenbat balio dute kiwiek?

Itzuli esaldiak

Traduce estas frases

- Este vino vale mucho. ¿Lo quieres?
- Ese chacolí (txakolin) no vale mucho.
- El pan vale un euro.
- Este pan vale un euro, es bueno.
- Este melón vale mucho.
- Las fresas son caras, valen mucho.
- Esto es barato, vale poco.
- Eso vale muy poco.
- ¿Cuánto valen los puerros?
- No quiero puerros. ¿Cuánto vale esto?
- Esto no vale mucho.



Ikusi irudiak eta adierazi zenbat euro dauden.
Fíjate en las imágenes y escribe cuántos euros hay.



Euroak

Zenbat euro daude?

Zenbat diru da hori zure herrian?
¿Cuánto dinero es esto en tu país?

Ikusi bideoa eta jarri elkarrizketak bere lekuan.
Después de ver el video, relaciona las conversaciones con las imágenes.

Azokan



- Egun on! Zer nahi duzue?
- Haragia. Bi xerra nahi ditugu.
- Zenbat balio du honek?
- Kiloak 9 € balio du.
- Aizu, gutxi da. Beste xerra bat, mesedez!
- Zenbat da?
- 4 €



- Egun on! Zer nahi duzu?
- Arrautzak. Dozena erdia nahi dut.
- Zenbat balio du?
- 1 € balio du.

- Kaixo, zer nahi duzue?
- Porruak.
- Hemengoak dira?
- Jakina! Baserrikoak eta merke-merkeak!
- Zenbat nahi duzue?
- Dozena bat.
- Zenbat da?
- 2 €

Power Point aurkezpena

Oinarrizko elikagaiak

Hauek dira janari nagusiak Euskal Herrian ere. Izenik badakizu?



- Haragia
- Arraina
- Zerealak
- Esnekiak
- Barazkiak
- Lekaleak
- Frutak
- Arrautzak
- Edariak

Power Point aurkezpen bat ikusiko duzu. Saiatu hiru izen memorizatzen. Ondoren, galdetu ikaskideei. Bukatzeko, binaka taula osatu. Verás una presentación de *power point* sobre el nombre de los alimentos. Intenta memorizar tres. Después pregunta a tus compañeros cómo se llaman esos alimentos. Por último, completa la tabla en parejas.

Antxoa Ardoa Arrautzak Arroza Atuna
 Azukrea Babarrunak Esnea Espagetiak Garbantzuak
 Gatza Gazta Gurina Ilarrak Laranja Legatza Letxuga
 Mandarina Marrubiak Ogia Oilaskoa Olio Patatak
 Platanoa Porruak Sagardoa Sagarra Tipulak
 Tomatea Txipiroiak Txuleta Ura Xerra Jogurta Zukuak

Haragiak	
Arrainak	
Zerealak	
Esnekiak	
Lekaleak	
Frutak	
Barazkiak	
Edariak	
Bestelako produktuak	



Testua osatu

Osatu elkarrizketak. Completa las conversaciones.

Dendan

- Zer nahi duzu?
- Nik piperrak nahi _____.
- Nongoak? Ibarakoak ala _____?
- Ibarakoak txikiak dira, baina oso _____.
- Zenbat balio _____?
- 4 € kiloak
- Oso ondo.
- Zenbat nahi _____?
- Kilo erdia, mesedez!

dituzu
dute
ditut
Gernikakoak
goxoak



- Egun on, zer nahi _____?
- Guk... Zer da hau?
- Hau sagardoa _____.
- A! Ez da ardoa, ezta?
- Ez, sagardoa da. Merkea da.
- _____ balio du?
- 3 €. Astigarragakoa da.
- A, bai, guk joan _____ dugu sagardotegira.
- Bai, giro ona dago. Beno, zenbat botila nahi _____?
- Hiru, mesedez!
- Oso ondo, bederatzi € dira.

da
dituzue
duzue
nahi
zenbat



Barazki-dendan

Ordenatu elkarrizketa. Ordena las frases del diálogo.

Adibidez...

- *Kaixo, egun on! Zer moduz?*
- *Oso ondo, eta zu?*

Dendariak



- Kaixo, egun on! Zer moduz?
- Beno, hauek merke daude. Bi € kiloak.
- Besterik nahi duzu?
- Bost €.
- Ez, eskerrik asko, ez ditut behar. Ongi izan!
- Horiek garestiak dira, baina oso onak.
- Ogia, letxuga... Barkatu, zenbat tomate nahi dituzu?
- Oso ondo. Zazpi euro eta berrogei zentimo dira.
- Primeran! Zer nahi duzu?

Bezeroak



- Oso ondo, eta zu?
- Bai, agur!
- Baina, zenbat balio dute?
- Eta beste horiek?
- Ez, oraingoz ez.
- Hiru edo lau. Zenbat balio dute?
- Nik ogia, letxuga eta tomateak nahi ditut.
- Oso ondo. Horiek nahi ditut, garestiak. Jarri lau, mesedez!
- Tori! Txanponik nahi duzu?

Jarri binaka eta antzestu elkarrizketak.

Sin ver cómo ha resuelto la tarea tu compañero -a, asignaros un rol (dendari, bezero) y mantener la conversación siguiendo el orden que cada cual ha decidido. Si la conversación es coherente, lo habéis hecho muy bien. Si no lo es, encontrad dónde está el error.



entzumena

Erosketa-zerrenda

Emakume bat, Marisa, bulegoan dago eta etxean falta dituen produktuak erosteko eskatu dio senarrari. Entzun bien arteko elkarrizketa eta aukeratu zerrenda zuzena.

Una mujer, Marisa, está en la oficina y le ha pedido a su marido que compre los productos que les hacen falta en casa. Escucha su conversación y elige la lista correcta.



A

2 kilo sagar
1 dozena arrautza
6 porru
4 txahal-xerra
2 lata tomate
1 ardo botila
4 jogurt

B

2 kilo sagar
1 dozena arrautza
2 tipula
4 porru
4 txerri-txuleta
2 lata tomate
4 jogurt

C

2 kilo sagar
1 dozena arrautza
6 porru
4 txahal-xerra
200 g urdaiarpiko
1 ardo botila
4 jogurt

D

2 kilo sagar
1 dozena arrautza
6 porru
1/2 kilo sardina
2 lata tomate
1 ardo botila
4 jogurt

Zein da Marisaren erosketa-zerrenda?

Pasa las frases a la forma negativa.

- Honek gutxi balio du.
- Sagardo hau naturala da.
- Guk sagardotegira joan nahi dugu.
- Guk janaria behar dugu.
- Nik diru gutxi dut.
- Lagunek dendara joan nahi dute.
- Azoka Ordizian dago.
- Guk dirua behar dugu.
- Sagarrek asko balio dute.
- Hau azoka da.
- Lagunek fruta erosi nahi dute.
- Michaelek gazta nahi du.
- Gazta hori Idiazabalgoa da.

Honek ez du gutxi balio

AZOKAN

Antolatu azoka ikasgelan. Azoka honek denetik izango du- harategia, okindegia, barazki-denda... Batzuek erosleak izango zarete; besteak dendariak. Erosleek erosketa-zerrenda prestatuko duzue; saltzaileek, denda.

Organizad un mercado en clase. Este mercado puede abarcar todo tipo de establecimientos -carnicería, panadería, frutería-. Los que forméis el grupo de los clientes haréis la lista de compra; los vendedores organizaréis la tienda.

Telefono-zenbakiak



Zenbakiak oso inportanteak dira. Adibidez, Anak turismo-bulegoko telefonoa jakin nahi du. Zuk orain leku hauetako telefonoa jakin nahi baduzu, **entzun grabazioa** eta aurkitu telefono-zenbakia.

Si como Ana quieres conocer el uso de los números de teléfono, escucha la grabación y relaciona los lugares con su número correspondiente.

ELIZA
ERTZAINAK
ESKOLA
EUSKALTEGIA
HAURTZAINDEGIA
IGERILEKUA
KIROLDEGIA
KULTUR ETXEA
LIBURUTEGIA
SOS DEIAK
SUHILTZAILEAK
UDALETXEA

943 889231
944 162317
943 228016
944 001289
965 871245
787 987654
600 881225
945 142396
945 141410
900 162312
901 131617
112



etxerako lana

Deklinatu hitzak

- Mikel____ dendan dago. Mikel____ porru____ erosi nahi ditu.
- Letxuga____ merkeak dira. Letxuga____ ez dute asko balio.
- Zenbat balio dute sagar____ ? Nik bi kilo sagar _____ nahi ditut.
- Guk bi dozena arrautza _____ nahi ditugu.
- Zenbat balio du haragi____? Nongo____ dira patatak? Patata hauek Araba____ dira.

Idatzi zenbakiak euskaraz
Escribe el nombre de cada número

53
21
36
42
58
64
79
81
95
111
687
1.275

Deklinatu erakusleak NORK kasuan, adibidean bezala.
Usa demostrativos del caso NORK para completar las frases. Fíjate en el ejemplo.

Hau ona da. **HONEK** asko balio du.

Hori merkea da. _____ gutxi balio du.

Barazki horiek freskoak dira. Barazki _____ itxura ona dute.

Hura naturala da. _____ bitamina asko ditu.

Haiek baserrikoak dira. _____ zomorroak dituzte.

Esne hau baserrikoa da. Esne _____ zapore handia du.

Osatu elkarrizketa

Completa las conversaciones con las palabras que tienes al lado de la imagen.



Fruta-dendan

balio
dut

bihar arte
sagarrek

dago
ditut

- Egun on, Maria!
- Baita zuri ere! Eguraldi ona _____gaur, ezta?
- Bai, ona dago, bai. Zer nahi duzu?
- Sagarrak nahi_____. Zenbat balio dute_____?
- Kiloak € bat balio du.
- Merke daude. Eman bi kilo.
- Marrubiak nahi dituzu?
- Ez, marrubirik ez _____nahi. Marrubirik ez dut behar. Meloia nahi dut. Baduzu?
- Bai. Ona, gainera! Ofertan dago, ez du asko_____.
- Bada, jarri horixe. Zenbat da dena?
- 4 euro eta 97 zentimo.
- Oso ondo,_____!
- Bai, agur!



Ikasgai honetan hau ikasi duzu:

- Erosketak egiteko elkarrizketa xumeak egiten.
A mantener una conversación sencilla en una tienda.
- Informazioa eskatzen eta ulertzen.
A pedir y entender información.
- Janarien izena
Nombres de alimentos.
- Janari unitate eta kantitateak
Cantidades y unidades.
- BALIO aditza
El verbo "balio", valer.
- Zenbakiak
Los números



Zer erosi Euskal Herrian?

Euskal Herrira etorri zara eta etxera opariak eraman nahi dituzu, ez dakizu zer erosi, egon lasai, guk proposamen batzuk ditugu zuretzat eta.

Janariak



- Idiazabal gazta: Ardi-esnearekin egin behar da.
- Nafarroako eta Gernikako piperrak: Nafarroako piperrak gorriak dira, piper batzuk gozoak dira eta beste batzuk minak. Gernikakoak berdeak eta txikiak dira.
- Nafarroako zainzuriak: Esparragoak entsaladan edo maionesa pitin batekin jan ahal dira.
- Gorbeia ezti: Ezti naturala da eta oso gozoa.
- Iparraldeko pastela: Barruan esne krema, txokolatea edo marmelada eraman ahal du.
- Elizondoko txokolatea: Txokolate beltza da, hurrak ditu eta pisura erosi behar da.

Edariak



- Patxarana: Basaran fruituekin eta anisarekin egin behar da. Bazkaldu eta afaldu ondoren edaten da.
- Txakolina: Mahats zuriaren zuku gozoa da. Arrainarekin edaten da.
- Nafarroako ardo gorria: Fresko-freskoa edan behar da eta mahats beltzaren zuku alkoholduna da. Haragiarekin edaten da.
- Sagardoa: Sagarraren zuku da. Botilatik edo kupeletik edan ahal da. Haragiarekin edaten da.

Opariak



- Euskal makila.
- Zahatoa: Larruzkoa da eta bertan ardoa gordetzen da.
- Txapela: Buruan jarri behar da.

- Lauburua: Euskaldunon sinbolo da. Lau elementuen sinboloa da. Lurra, ura, sua eta haizea.
- Ikurrina: Euskaldunon bandera eta ikurra da. Zuria, berdea eta gorria.

Material osagarria




- Arratsalde on, Martin!
- _____, Ane! Zer moduz zaude?
- Oso ondo, primeran! Oso eguraldi ona dago gaur, ezta?
- Bai oso ona. Gaur aprobeixatu behar _____. Nik beltz-beltz joan nahi dut etxera. Beltz-beltz!
- Kontuz ibili, Martin, eguzkia arriskutsua _____. Crema pixka bat nahi _____?
- Bai, crema pixka bat behar _____. Bizkarra lehor-lehor dut.
- Eskerrik asko, Ane! Nahi al duzu freskagarririk?
- Ez, ez naiz egarri. Gose naiz. Hara, patata-saltzailea hor _____.
- Zenbat balio _____patatek?
- 2 €. Oso onak _____.
- Ekarri pakete bat, mesedez!
- Martin, oso onak daude. Nahi duzu _____?
- Ez, eskerrik asko! Oso ondo nago honela.



binaka

Binaka, asmatu horrelako beste elkarrizketa bat. Ondoren, antzeztu. Debéis escribir una conversación. Luego, tratad de interpretarla de la forma más natural posible.



entzumena

Joxe eta Maria



Entzun aurretik, nahi baduzu, ikusi hiztegia:

Barraskilo
Perretxiko bila
Lehenbailehen
Gau pasa egin du

Gozoa egongo da!
Urduri

Caracol
 Buscando setas, a por setas
 Cuanto antes
 Se ha pasado la noche sin dormir,
 de juerga
 ¡Estará enfadada, menudo humor tendrá!
 Nervioso, -a



egia

gezurra

1. Joxe eta Maria bikotea ezagutzen dugu.
2. Euskal Herrian ez dugu barraskilorik jaten.
3. San Prudentzioak maiatzean izaten dira.
4. Joxek ez du joan nahi, nekatuta dagoelako.
5. Joxe tabernatik tabernara ibili da.
6. Perretxikoak mendian bildu ditu.
7. Maria bigarren pisuan dago.
8. Maria ez dago urduri.
9. Joxe berandu etorri da, barraskiloak oso lentoak direlako.

--	--

--	--

--	--

--	--

